

ANE

Hasierako agurra

Eguerdi on, gu Irati Uribesalgo, Nerea Garin eta Ane Azkuenaga gara eta gaur hizkuntzen ofizialtasuna azalduko dizuegu. Nahiz eta Euskal Ikasketetako ikasleak ez garen, interes berezia daukagu soziolinguistikan eta bereziki euskararenean, baita ingelesaren eta frantsesaren egoera sozialean ere.

“Hizkuntzen ofizialtasuna” *Hizkuntze mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena* liburuan agertzen den kapituluetakoa bat da eta kapitulua azaltzen hasi baino lehen testuingurua azalduko dizuet.

Liburu hau UNESCO etxeak egindako txostenen bitartez gauzatu zen, euskaraz argitaraturiko *Filologia eta Hizkuntzalaraitza* bildumaren baitan. Bertan munduko egoera soziolinguistikoa zein den azaltzea du helburu zenbait deskribapen eta iritzi bilduz. Era berean, etorkizunean tokian tokiko hizkuntz komunitateei baliogarriak izan dakizkien argibideak ematen dira.

Egia da hizkuntz aniztasuna posible jarraitzen izateko eta hizkuntza gutxituei behar duten ikusgarritasuna emateak gaztazkak izan ditzakeela sorburu. Baina, bereziki, eztabaida ugari planteatzea eta kontzientzia soziolinguistikoa piztea ditu helburu.

Beste alde batetik, azpimagarria da autoreek eremu desberdinetan lan egiten dutela: besteak beste UNESCO etxeko zuzendaria edota unibertsitate irakaslea dira. Gainera, antzeko lanak argitaratu izan dituzte lehenago.

Hortaz, guk landu dugun kapituluak puntu hauek jorratu ditu: *AIPATU (aurkibidea)*.

Estatua eta hizkuntza ofiziala

Egungo estatu askoren hizkuntz politika, beren “nazio hizkuntza” sustatzea da. Emandako prestigio eta bultzadari esker, estatuko beste hizkeren gainetik jarri da “nazio hizkuntza” izendatutako aldaera; honek gainontzekoen bazterketa, prestigio galera, arriskua edota galera ekarriko badu ere.

- Nazionalismoa europarrak ekarria: “nazio-estatu”, “homogeneizatzeko politika”, botere ekonomikoa duten hizkuntza kolonizatzaile eta prestigiodunak ofizial bihurtzen ditu gainerako hizkuntzetat kaltetuz eta kulturak baztertuaz.

Iruditzen zaigu aipagarria dela munduko hizkuntza guztien %5a baino gutxiago direla ofizial edo koofizial, hau da, munduan 232 estatueta 250 hizkuntza bakarrik. Bestalde, konstituzioa, hizkuntzaren garapena eta iraupena sustatzeko neurri zehatzak hartu izan dira, adibidez, estatu batzuetako hizkuntzak ofizial izan ez arren administrazioan eta hezkuntza sisteman bultzatu egiten dira.

Nazionalismo europarrak rol garrantzitsua izan du horretan, mundu osora zabaldu baitu estatuko hizkuntza, administrazio eta hezkuntza sistema bateratua izateak herrialdea batu eta indartzen duelako, horrela estautaren kohesioa eta aurrerapena erraztu izan da hainbat lekutan. Estatu gehienek juridikoki goberanriena den hizkuntzaren garapena eta garbitasuna zaindu eta faboratu dute, besteekiko nagusitasun eta garapena lortzeko, horrela hizkuntza gutxituek indar gutxiago dute eta hizkuntza handiek indar gehiago.

Horrez gain, estatu modernoek sorreran zehar Europako hizkuntza bakarraren eredu jarraitzea erabaki da, mundu ikuskera bakarrak "hizkuntza nazional" delakoa inposatuz, ustez estatuari aurrerapen eta onurak ekarriko baitizkio.

Mapa horrela Amerikako, Asiako eta Afrikako estatu gehienetan gaztelera / frantsesa / ingelesa / alemana / portugesa inposatu dira. Gauzak horrela, 5 kasutan multzokatu daiteke herrialdeen egoera soziolinguistikoa:

1. Hizkuntza kolonialek hizkuntza nazionala ordezkatzea Australia, Zeelanda Berria, Brasil
2. Hizkuntz aberastasuna ondo zaintzeko eta Mendebaldeko ohiturak hartzeko Kamerun edo Guatemala
3. H. kolonizatzailea eta bertakoa (biak) mantentzea ofizial moduan Kenya edo Vanuatu
4. Eredu europarra imitatu baina bertako hizkuntza batekin Turkia edo Tailandia
5. Hizkuntz ondarea zaindu eta bultzatu (h. ofizial asko) Hegoafrika edo India

Azkeneko kasuan Indonesia ere egongo litzateke *Indonesiako mapa*. Indonesiar gehienek hizkuntza bat baina gehiago erabiltzen dute aldi berean, eta horrela hartzen dute garrantzia eskualde hizkuntzek.

Eskualde hizkuntzak etniaren munduaren ikuskeraren, gizartearen ezagueren egituraketaren, gizartean duen lekuaren, kulturaren eta beste hainbaten isla izateaz gain, unibertsal linguistikoen nahiz kognitiboen zientziari buruzko gai teoriko garrantzitsuak ikertzeko aukera paregabea ematen diete zientzialariei; hizkuntz unibertsalen nahiz gizakiaren bilakaera ikertzeko bide dira.

Estatua, hizkuntza eta lurraldea

Estatu, hizkuntza eta lurraldearen trinomioa ere garrantzitsua da. Egungo estauten mugek hizkuntza komunitateak errespetatu ez izana aski ezaguna da, horrek gerra gatazka eta mugen aldakortasun ugari eragin ditu, besteak beste hizkuntz komunitate asko estatu batean baina gehiagotan banatuak daudelako:

- Europako adibide gehienak aski ezagunak dira guretzat: katalana, euskara, samiera, frisiera, okzitaniera...

- Erdialdeko Amerika gehienan ere berdina gertatzen da

- Afrikan estatu gehienak erregela batez banatu zituzten, hizkuntz komunitateen arteko talkak eta gatazkak sortuz.

Hainbat tokitan mugak ez datoz bat tokiko hizkuntz komunitatearekin. Ekuador eta Peru arteko mugak hizkuntza indigena bat banatzen du

Hizkuntz ondarea babesten eta sustatzen duen hizkuntz politikak sentikortasun handiz jokatu behar du.> kanpoko indarrek zein erakundek ezin diete hizkuntzei kalterik egin (kultur banaketa artifizialak eta horrelakoak). Gainera, kolonizatzaileek lortu nahi duten batasun hori lortzea ez da erraza.

IRATI

Ofizialtasunari eta hizkuntzen arteko harremanari dagokienean, testu honek ematen dituen 1992ko datuen arabera, munduko hizkuntzen %5a baina gutxiago besterik ez ziren ofizialak. Suitza eta Irlanda bertako hizkuntzen ofizialtasun prozesuan aitzindari izan ziren XIX.mende amaiera eta XX.mende hasiera bitartean; ondoren, beste herrialde askok bide bera jarraitu dute. 3 talde nagusitan bana genitzake estatuak, herrialdearen eta ofizialtasunaren arteko harremanaren arabera sailkatuz:

- bertako hizkuntza guztiak ofizialtzat hartzen dituztenak, besteak beste: Sri Lankak, Luxenburgok, Belgikak, Hegoafrikak, Paraguaik, Eritreak, Nigeriak...
- bertako hizkuntzen artean bakarra da "estatu hizkuntza" eta gainontzeko beste batzuk kooizial: Espainia, Danimarka, Errusia, Txina...
- bertako hizkuntza batzuk ofizial edo koofizial izan gabe, administrazio nahiz hezkuntza sistemetan erabiltzen dira: Ghanan, Indian, Papua Ginea Berrian...

Hagègen arabera, hizkuntzak estatu mailan ofizialtasuna lortzeko konstituzioan sartuta egon behar duela dio, berau zaindu eta sustatuko dela bermatzeko. Ofizialtasunak hiztunari prestigioa ematen dio eta horrela, hiztun horrek hizkuntzaren sustapenaren eta zaintzaren borrokatuko duela uste da.

Hala ere, badira ofizialtasunaren eta ez-ofizialtasunaren arteko mugan sartzen ez diren HPPk ere, zehatz esanda, hizkuntza jakin batzuen tolerantzia onartzen dutenenak. Kasu hauetan instituzio publikoek eta estatuak bi jokabide izan ditzakete: batetik, botere publikoek hizkuntza toleratzea (BHK galesera), eta bestetik, estatuak berak hizkuntza guztien ofizialtasuna aldarrikatzea (Mozaubike, Peru, Kolonia, Ekuador, Mexiko...). Hala ere, informatzaileen esanetan, badira hizkuntzak herrialdetik desagertzea nahi duten estatuak ere, besteak beste: Brasil, Frantzia...

Frantziaren kasua aztertzea komenigarri iruditu zaigu besteak beste Euskal Herriaren zati bat bertan delako eta kulturalki bada ere herrialdeko HPP ezagutzea garrantzitsua dela deritzogulako. Bretoiera Frantziar ipar-mendebaldean dagoen komunitate baten familia zeltari dagokion hizkuntza da. Lehen Mundu Gerra baina lehenago Britainiako biztanleria milioi eta erdikoa zen, eta bretoieraz hitz egiten zutenak berriz, milioitik gora. Mende hasieran jada hizkuntza gutxitu hau hezkuntza sistematik baztertua geratu zen. Lehen Mundu Gerran zehar soldaduen artean izandako komunikazio faltak Frantziar estatu zentralista frantsesa hezkuntza sisteman areagotzeko jarrerak hartzera eramanez, eta horrela biztanleria guztiak gutxienez frantsesa jakingo zuen. Bide honetatik jarraituz, frantsesa sustatu zen estatu osoan barrena, eta hizkuntza gutxituak alboratzeko eta indargutxitzeko saiakera paregabea egin zuen Errepublikak. Gaur egun 250.000 hiztun inguru ditu bretoierak. Hezkuntza sisteman berrezartzeko saiakera ugari izaten ari dira azken hamarkadetan, eta horiek horrela, jada eskola pribatu kristauek, eskola publikoek zein Diwanek bretoieraz hez ditzakete euren ikasleak, hein txiki batean bada ere Frantziar estatuko beste hizkuntza gutxitu batzuek lortu ez duten aurrera pausua izan da. Diwanak = Calandretak = Ikastolak

Hau dena liburuko kapitulu honetan Francis Favereau-ren eskutik eskeinia dago. Britainiako Rennes hiriburuko letra eta arteen unibertsitate irakasle izan da, bretoierako hiztegi dezente ere sortu izan ditu.

Hala ere, badira hizkuntz ondarea babesteko legediak egin izan dituzten herrialdeak ere. Samieraren kasua adibidez oso berezia da. Norvegian, Suedian, Finlandian eta Errusiako mendebaldean hitz egiten zen hizkuntza baten kasua da azalduko dudana hurrengoan. Bigarren Mundu Gerra aurretik hizkuntza hegemonikoen bereganatze prozesua martxan jarri zen lau herrialde hauetan. Mundu Gerra honen ondoren aldiz, berezitasuntzat onartua izan da denetan Errusian izan ezik, eta horrela, hezkuntza sisteman erabiltzen hasteko aukera egon da. Estatu ezberdinetako lurraldeetan hedatua egoteak ezinbesteko egin du sami herriaren kultura eta hizkuntza zainduko dituen estatuz gaindiko koordinazioa sortzea.

Kanadan 70ko hamarkadaz geroztik jatorrizko herri indigenek beren hizkuntzak ikasteko eta administrazioarekiko harremanetan erabiltzeko eskubidea aitortu zaie. 88az geroztik bertako 6 hizkuntza gutxi koofizial izan dira ingelesarekin eta frantsesarekin batera, diru laguntzak jasoz eta beste probintziarikiko erreferentzi puntu bilakatuz.

Zeelanda Berrian ere, maoriera hizkuntza ofizialtzat hartu zen 1987an.

NEREA

Hizkuntz ondarea babestearen aldeko ekimenak

Zer esanik ez dago, Europar Batasunak hainbat ekimen egin izan dituela hizkuntz ondarea babestearen alde. 1958rako Europar Batasunean *bereizkeriarik ezaren printzipioa*, hots, herritarrek erabiltzen duten hizkuntza dela-eta diskriminatzea azpimarratu eta ideia hori helarazi zen, baita *Eremu Urriko Europako Gutuna* onartu ere zeina ofizialak ez diren hizkuntzen eskubideak babesteko betebeharretan eta neurrietan oinarritzen den.

Bestalde, EBLUL (European Bureau for Lesser Used Languages) erakundea izango genuke hizkuntz ondarea babestearen aldeko eredu; eta honen aipamen garrantzitsu bat "EBan 40 milioi lagunek ofizialtzat hartu ez diren hizkuntzak erabiltzen dituztela" izango litzateke.

Afrikan ere alarma egoeran, azken hamarkadetan biltzarrak eta ekintza planen proposamenak aurrera eramanez, gobernuko agintariek beraiek hizkuntz minorizatuen sustapenerako egiazko neurriak abian jartzeko beharra azpimarratzen zutelarik. 2000an eginiko Asmarako deklarazioa da adibide nagusi Afrikako hizkuntza eta literatura bultzatzeko aldarrikapen gisa.

Ekimen hauek, azken batean, politika pasiboari aurre egiteko proklama ere badirela azpimarratu beharra dago; estatuak hizkuntzekiko tolerantzia izan badutelako, ez dituzte ordea, bestelako neurriak hartzen, eta hori dela eta, hizkuntzen biziraupena ez dago bermatuta askotan.

Hizkuntz Eskubideei buruzko Deklarazio Unibertsala

Egoera honen aurrean hartutako neurrien harira, 1996an Bartzelonan hizkuntza gutxiak babesteko helburuarekin Hizkuntz Eskubideei buruzko Deklarazio Unibertsala egin zen; erreferente hartzen delarik nazioartean bestelako legedirik ez baitago. Herri eta hizkuntza guztien berdintasunaren printzipioak; desoreka egoerarik gabeko bizikidetzak eta hizkuntza guztiekiko errespetuaren sustapenak dira oinarritzko aipuak deklarazioan.

Hizkuntz politikari buruzko ikuspegi berria

Orain arte martxan izan den hizkuntz politikak estandarizazioa eta zentralismoa ditu helburu, nazioaren forma eta funtzioak dutelarik lehentasuna, ingurune funtzional eleanitza ez duelarik kontutan hartzen. Hau horrela izanik, hizkuntzen arteko menderatze erlazioa sortzen da, hizkuntza nagusia bihurtzen denak funtzio guztiak beregain hartzen dituelarik. Hori dela eta, hizkuntza marjinatuak zamatzat jo eta hauek galtzeko arriskua handitu egiten da.

Mendeko hizkuntzen egoera arriskutsuaren aurrean hizkuntz politika berria eratu da, zeinak ikuspegi berri bat lantzen duen. Hasteko, errealitate eleanitzean oinarrituz, bertara egokitzen da, hizkuntz eta herritarren eskubideak kontutan hartuz, eta hauek estatuaren interesetara moldatuz, bien arteko bideragarritasuna lortzeko. Modu honetan, berdintasuna dago hizkuntzen artean, nagusitasun erlaziorik gabea eta funtzionaltasun eleanitza ez da negatibotzat hartuko, gizabanakoarentzako abantaila baizik. Aurrekoarekin alderatuz, honek, politikaren kontrol mekanismoa deszentralizatua izango luke.

Hizkuntzen ofizialtasunari buruzko zenbait gomendio

Beraz, aipatutakoa bete dadin testuak irmoki adierazten da agintariak, legegileak eta gizarteko kudeatzaileak helburu hauen atzetik jardun beharko dutela:

Besteak beste, errespetatzea gizabanako zein komunitatearen aurrean hauek hizkuntza hautu bat ala beste egiten dutenean eremu publikoan edo pribatuan erabiltzeko eskubidea eta baita ondoren, hizkuntza irakaskuntzan, zerbitzu publikoen kudeaketan, justizian txertatu nahi izanez gero ere. Horrez gain, konstituzioan lurraldeko hizkuntza guztiei estatu mailako koofizialtasuna aitortzeak hauen sustapenean lagunduko lukeela kontutan hartzea, modu honetara, laguntzak eta babes ekonomikoa jasotzeko. Azkenik, zer esanik ez dago neurri horiek kontrolatzeko erakunde bat eratu beharko litzakeela, komunitateak berak kudeatuko lukeena, non hizkuntz eskubideen urratzeak salatu eta sortutako arazoei irtenbideak bilatuko lizkiokeen.

Itxiera fasea

Helburu horiek aipaturik amaituko genuke hizkuntzen ofizialtasunaren inguruko testuan lantzen diren gaien inguruan jarduten eta laburbilduz, aurkezpen honetako ideia nagusitzat hizkuntzak; haien kultura, errealitatea, ezagutza, eta egitura kognitiboak irudikatzen tresna direla azpimarratu nahiko genuke. Testuan nabarmendu den bezala gizartearentzat onuragarri eta aberasgarri dira eta historian zehar hizkuntza ez kolonialek jasan duten errepresio eta zapalkuntza ikustarazten du, era egokian landuta dagoela iruditzen zaigularik; hizkuntza minorizatuei babesa ematen baitie eta bestelako etorkizun bat eraikitzen indarra. Ikuspegi zehatz hori lantzen dela kontutan izanik, testu gomendagarritzat jotzen dugu edonorentzat gaur egungo datu bilketa bat jaso eta ideia aurrerakoiak dituelako, hizkuntza berdintasunean oinarritutakoak; Gure ustetan, gizartean presente izan beharko luketenak hizkuntzen inguruko arazoak bideratzerako orduan hizkuntza eskubideak lantzen baititu.

Hau esanda, espero dugu gure aurkezpenaren ideia nagusiarekin behintzat geratu izana, ondoren baliagarria egingo zaizuen, eta gustura egon izana entzuten. Mila esker zuen arretagatik.

